

**ALKATETZA
DEKRETUA**

2021 000003075

Espediente-zenbakia: 2021/KON_NE_G0001**Xedea**

Udal ibilgailuen mantentze eta konponketa integralaren zerbitzu espedientea onartzea

Aurrekariak

Lehenengoa: Tokiko Gobernu Batzarrak, 2021eko otsailaren 23an hartutako erabakiaren bidez, udal ibilgailuen mantentze eta konponketa integralaren zerbitzu kontratua prozedura irekiz kontratatzeko espedientea onetsi zuen, erregulazio harmonizatuaren pean eta esleitzeko irizpide bakarrarekin.

Bigarrena: Espedientea izapidetu ondoren, 2021eko maiatzaren 24ko 1704 zk. Alkatetza Dekretu bidez, udal ibilgailuen mantentze eta konponketa integralaren zerbitzuaren kontratazioa hutsik deklaratzeko erabaki zen, prozeduran zegoen lizitatzailerak ez zuelako aurkeztu Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 150. artikuluan adierazitako dokumentazioa guztia, ezta behin betiko bermea eratu ere.

Hirugarrena: Beharrezana oraindik dagoenez, 2021eko maiatzaren 24ko Zinegotzi Delegatuaren probidentzia bidez, lizitazio prozedurari hasiera eman zaio berriro.

Laugarrena: Jarraituko den prozedura publikitate gabeko prozedura negoziatua da, aurreko lizitazio prozedura hutsik geratu delako. Kontratuaren balio estimatua, luzapenak eta kontratua aldatzeko aurreikusitako aukera guztiak barne, 238.016,53 eurokoa da, BEZa kanpo.

Bestalde, kontratu honen lizitaziorako oinarrizko aurrekontua 60.000,00 eurokoa da, BEZa barne. Kopuru hori izango da kontratazio organoak konprometitu ahal izango duen gehienezko gastua.

Bosgarrena: 2021eko maiatzaren 24an, Kontabilitateko Arduradunak kontsignazio nahikoa adierazten duen RC dokumentuak igorri ditu.

Seigarrena: Zerbitzu Saileko Teknikariak justifikazio memoria egin du, 2021eko ekainaren 4an, non kontratuaren beharra eta egokitasuna jasotzen dituen.

Zazpigarrena: 2021eko ekainaren 23an, Idazkaritza Saileko AOTk kontratazio arloko txosten juridikoa igorri du.

**Sinadurea eta data**

Zortzigarrena: Udaleko Idazkari Nagusiak eta Kontuhartzaileak txostenak eman dituzte, 2021eko uztailaren 1ean eta abuztuaren 3an, hurrenez hurren.

Argudioak

Lehenengoa: Kontratu administratibo baten aurrean gaude, azaroaren 8ko 9/2017 Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen 25. artikulua araberaz.

Bigarrena: Kontratu hau zerbitzu gisa kalifikatu behar da, Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen 17. artikuluan ezarritakoaren arabera: *"zerbitzu-kontratuak objektu hau dutenak dira: jarduera bat garatuz prestazioak ematea edo obrak edo horniduraz bestelako emaitza bat lortzera bideratutako prestazioak ematea; halako kontratuen artean daude, besteak beste, adjudikazioduna zerbitzuak hurrenez hurren eta prezio unitario baten truke ematera behartzen den kontratuak. Ezin dira kontratu horien objektu izan botere publikoari dagokien aginteaz baliatzea eskatzen duten zerbitzuak."*

Halaber, erregulazio harmonizatuari lotutako kontratua da, balio zenbatetsia 214.000,00 eurotik gorakoa baita, Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen 22.1.b) artikuluan xedatutakoarekin bat.

Bestalde, kontratazio arloko errekurtsio bereziaren mende dago, arau bereko 44.1.a) artikuluari jarriki.

Hirugarrena: Espediente honetan publizitaterik gabeko prozedura negoziatua erabiltzea proposatu da, SPKLren 167. eta 170. artikuluei jarraiki. Prozedura honen erabilera SPKLren 168.a.1) artikuluan aurreikusitako kasuan justifikatzen da:

"Los órganos de contratación podrán adjudicar contratos utilizando el procedimiento negociado sin la previa publicación de un anuncio de licitación únicamente en los siguientes casos:

a) En los contratos de obras, suministros, servicios, concesión de obras y concesión de servicios, en los casos en que:

1.º No se haya presentado ninguna oferta; ninguna oferta adecuada; ninguna solicitud de participación; o ninguna solicitud de participación adecuada en respuesta a un procedimiento abierto o a un procedimiento restringido, siempre que las condiciones iniciales del contrato no se modifiquen sustancialmente, sin que en ningún caso se pueda incrementar el presupuesto base de licitación ni modificar el sistema de retribución, y que se envíe un informe a la Comisión Europea cuando esta así lo solicite."

Laugarrena: Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen Bigarren Xedapen Gehigarrian xedatutakoarekin bat etorri, kontratazio-organo gisa duen eskumena alkatea da, balio



estimatu indarrean dagoen aurrekontuaren baliabide arrunten % 10 baino handiagoa ez delako.

Erabakia

Goian aipatutakoa kontuan izanda, honakoa erabakitzen dut:

LEHENENGOA: Kontratazioaren beharizana eta espedientearen hasiera berrestea.

BIGARRENA: Udal ibilgailuen mantentze eta konponketa integralaren zerbitzu kontratuaren espedientea, Administrazio Baldintza Agiriak eta eranskinak, eta Baldintza Teknikoen Agiriak onartzea.

Gehienez ere 60.000,00 euroko aurrekontua izango du (BEZa barne), URTE BATERAKO, eta urtez urte luzatzeko aukerarekin, gehieneko 3 luzapenekin. Kontratuaren balio estimatua 238.016,53 eurokoa izango da (kontratuaren urte bateko aurrekontua, urtebeteko hiru luzapen eta balizko aldaketak), BEZa kanpo.

HIRUGARRENA: Kontratu honek dakarren gastua baimentzea, lote bakoitzari dagokion kontu-sailaren kontura, eta dagozkion zenbatekoen kreditua konprometitzea, gauzatzeak eragiten dien ekitaldiaren kargura.

LAUGARRENA: Kontratu hau esleitzeko publizitaterik gabeko prozedura negoziatuaren bidez hastea, eta gonbidapenak bidaltzea. Horretaz gain, dagokion iragarkia argitaratuko da Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean eta Bermeoko Udalaren Kontratugilearen Profileen, Euskadiko Kontratazio Publikoaren Plataformaren bidez. Eskaintzak aurkezteko epea 30 egun naturalekoa izango da.

BOSGARRENA: Erabaki hau helaraztea Zerbitzu Sailari, jakinaren gainean egon dadin dagozkion ondorioetarako.

SEIGARRENA: Hurrengo Tokiko Gobernu Batzarrean eta Osoko Bilkuran erabaki honen berri ematea.

Oharra: sinadurea eta data orri-oinean .



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E50007738200S0K5Y3V3B4A0

Sinadurea eta data

MARIA IDOYA PLATAS ARENAZA-ALKATEORDEA - 12/08/2021
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 12/08/2021
13:14:02

EXPEDIENTE ::
2021KON_NE_G0001
Data: 24/05/2021
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia

